

Galtzaund



ESKUALDEA: II. Nañarri rallysprinta hilaren 25ean >>> Oargik rokodromo berria du **MEMORIA**
DANTZAN ANOETAN: Herria XIX. mendetik gaur arte **KULTURA:** Irakurri, gozatu eta oparitu
 >>> Mulamboren eskutik perkusio ikastaroak **KIROL SALTSA:** Tolosa CF-ko gimnastak bikain

ELKARRIZKETA: Balentin Dorransoro, Astanako masajista

293
296
297
298
299

3000

MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN
IKUSMENAREN PRESENTZIO RAKO KANPAINA 2009
www.multipos.org/publico.com

1. Calle Barrio 7 Tel. 943 67 19 19 Arauntze	2. Argala 11 Tel. 943 67 19 19 Donostia	3. Oteiza 11 - 1401 Tel. 943 67 19 19 Donostia	4. Euzkadi 11 Tel. 943 67 19 19 Gara	5. Calle Maritima 7 Tel. 943 67 19 19 Donostia	6. Mendiola 11 Tel. 943 67 19 19 Iruya	7. Euzkadi 11 Tel. 943 67 19 19 Donostia	8. Euzkadi 11 Tel. 943 67 19 19 Donostia
--	---	--	--	--	--	--	--

goITIK
Internet eta aurreinprimaketa zerbitzuak
korreo kalea, 45 behea - 20400 Tolosa
Telf. 943 67 08 19
goitik@goitik.com - www.goitik.com

aldama_tapia
aholkularitza
Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

hirukide
Batxilergoa
Zientziak eta Teknologia
Gizarte eta Bizitza Zientziak
Guztira Zientziak
Batxilergo Eleak
www.hirukide.org



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Oihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarnain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



zerbitzua eta lana
euskaraz

IRITZIAREN LEIHOA

- Tolosaldeko Bilgune Feminista: Emakumeak ahaztuenak, kaltetuenak
- Txomin Garmendia: Osa-tuko ote gera?

NORMALIZAZIO ATALA

- Aduna, Anoeta, Oresa eta Altzoko udalek onartu dute Osakidetzaren aurkako mozioa

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- II. Nafarri Rallysprinta, apirilak 25ean.
- Oargiko rokodromo berria, herritar guztientzat zabalik.

4-5. orrialdeak

6. orrialdea

14-19 orrialdeak

Galtzaundi 300

2009ko martxoaren 20a

Iritziaren leihoa: Tolosaldeko Bilgune Feminista eta Txomin Garmendia	4-5
Eskualdeko albisteak:	
II. Nafarri Rallysprinta apirilak 25ean	14
Oargiko rokodromo berria, herritar guztientzat zabalik.....	18-19
Kultura:	
Irakurri gozatu eta oparitu	23
Mulambo, brasildar erritmoak zabalitzen.....	24-25
Kirol saltsa:	
Tolosa CF Gimnasia Erritmikoko taldea ezagutuz	26-27



GALTAUNDIK...
Bat, bi... hirurehun!

7-13 orrialdeak

ELKARRIZKETA

“Izaera desberdina izan arren biak dira irabazleak. Zer nahi duten ongi dakitenak eta horretarako lan handia egiten dutenak. Zulle, Jalabert, Olanorekin aritu izan naiz eta denengan txapeldun izateko gaitasunaz gain, oso saiatsuak izatearena azpimarratuko nuke”

- Balentin Dorronsoro, Astana txirrindulari taldeko masajista

15-17. orrialdea



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udaleraren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



EMAKUMEOK AHAZTUENAK, KALTETUENAK

TOLOSALDEKO BILGUNE FEMINISTA

Krisian gaude, krisian daude, krisian dago... nor, zein, zer? Krisian daude finantza "pertsonak", krisian dauden banketxeek laguntzera irten dira Estatu buruak, krisiak gogor jo ditu enpresa buruak, krisiak zuzenean eragin die erregulazio espedientea aurkeztu dieten langileei... finantza "pertsonak", Estatu buruak, enpresa buruak, kalera-tutako langilea, EREak... ez al diote gizonezko aurpegia jarri komunikabideek eta, oro ar, iritzi publikoak denon ahotan dabilen krisiari?

Eraikuntza, metala eta automobilgintza gogor kolpatzen ari da krisia bai, baina emakumeengan dituen eta etorkizunean izango dituen ondorioez ahanzten dira. Krisi honen aurrean emakumeon abiapuntua desabantaila egoera da: lan bera egiteagatik egun oraindik %28 gutxiago kobratzen dugu emakumeok, ekonomia ezkutu nagusi izaten jarraitzen dugu, langabeziak eragin handiagoa du gugan, lanaldi partzialaren kontratuetatik %85a emakumeioi dagozki-gu, lan munduko jazarpen moralen %70 emakumeok pairatzen dugu. Beti izan gara bigarren mailako herritar

eta krisi honek egoera hori areagotu baino ez du egingo.

Emakumeok beti egin izan dugu lan, bai etxean baita etxetik kanpo ere. Emakumeon ekarpena, bai etxeko ekonomiar, bai herrien ekonomiar, errealitate bat izan da, baina ez da inola ere bere neurrian baloratu eta egun ere ez da baloratzen.

Lan merkatuan aspaldi sartu ginen emakumeok, baina ein handi batean, merkatuak berak behar gintuelako. Bide horretan instituzioak aliatu bikainak izan ditu merkatuak berak. Emakumeok momentuko beharrianak asebetetzeko erabili gaituzte, horretarako politika eta legeak aurrera eramanez.

Lan merkatuak eskulan merkea behar zuenean emakumeak bertara sartzeak gure errealizazio pertsonalean izango zuen garrantzia lau haizetara zabaltzeaz arduratu ziren. Hori bai, lan prekario eta baztertzaleenetan sartu gintuzten eta etxeko lanak, haur eta adinekoen zainketak gure gain erortzen jarraitu zuten. Azken urteetan berriz, emakumearen lan munduratzeari goraipatzeari utzi eta bizitza laborala eta familiarraren arteko adiskidetzeari beharra saltzen ari dizkigute. Ho-

rrela, zaintza beharrianen erantzuteko emakumei lan mundutik ateratzeko laguntza ekonomikoak ematen zaizkie. Haurren zainketa edota inguruko menpeko pertsonen bat zaintzeko lanaldiaren murrizketa eskatzen dutenen %90 emakumeak dira. Edota borondatezko eszedentzia galdegin dutenen %95,33. Amatasun/aitatasun baxa eskatu dutenetatik %98,35 dira emakumeak. Edota, Euskal Autonomi Erkidegoan, etxeko laneko ekoizpenaren %75 emakumeek egiten dute.

Baina ez, orain garrantzia duena, langabezia geratu diren gizonezkoen zorigaitza da, "familia tradizionaleko buruek" beren etxekoak mantentzeko ezintasuna. Zentzuzkoena, familiako ekonomia emakumeen esku geratzen den etxeetan, etxeko zein haurren zainketaz gizona arduratzea izango litzateke. Baina badirudi gauzek ez dutela norabide hori hartuko; emakumei etxetik kanpo eta etxean lan egiteaz gain, lur jota dagoen mutil laguna zaintzea ere tokatuko zaiela. Eta askotan "paperak galdu" izana aguantatu behar-kotutela. Izan ere, krisi egoeretan emakumeen aur-

"Badirudi gauzek ez dutela norabide hori hartuko; emakumei etxetik kanpo eta etxean lan egiteaz gain, lur jota dagoen mutil laguna zaintzea ere tokatuko zaiela. Eta askotan "paperak galdu" izana aguantatu behar-kotutela."

kako indarkeriak gora egiten du.

Azken finean, sistema patriarkal kapitalista honek ezartzen dituen rol tradizionalekin jarraitzen dugu, bestelakorik sinistarazi nahi badigute ere.

Sistema honen krisiak sorturiko arazoak jendarte osoak ez ditu berdin pairatuko, ez eta emakume guztiok ere, baina emakumeok ahaztuenak garen aldetik, kaltetuenak ere izango gara.

Baikortasunerako arrazoirik ere badugu ordea. Sistema kapitalista patriarkala krisian dagoen honetan, sistema beraren eraldaketarako aukerak ditugu. Horretarako ezinbestekoa da kalera irtetea eta gure eskubi-deak aldarrikatzea. Zita garrantzitsua dugu maiatzaren 21ean, greba orokorrarekin batera egungo antolaketa sozio-ekonomikoa hankaz gora jartzeko eragile eta herritar guz-tien artean. ■



kutxa

SANTA LUZIA GARAGEA



Grua zerbitzua 24 orduetan

943 653 491 943 653 874
943 653 985 943 806 020
Santa Luzia, 1 TOLOSA



OSATUKO OTE GERA?

TXOMIN GARMENDIA

Bertsolaria

Egia da ondo bizitzeko moduak etorri zaizkigula, baiña lengo morroiak esan zuna, "pagatuta e, pagatuta". Morroi ori joanda konpessatza eta iritsi dira lenengo agindutik seigarrenera eta morroiak esan dio apaizari, seigarren ortan ez dula pekaturik. Erri artan ere, bai omen zan neska mantso samarren bat eta apaizak:

- *I ez alaiz allegatu alako neskarena?*

- *Jauna, nik ez diot esango allegatu ez naizenik, baiña pagatuta e, pagatuta...*

Noan arira. Ainbeste erosotasun jarri zaizkigu, baiña pagatuta, eta ortan izango ditugu komeriak! Idazlan au asteko gogoa D.V. egunerokoak apirilaren 4an zekarren albis-

te batek eman dit eta ortara nijoa borondaterik onenez.

Gipuzkoako zaar-etxetan pertosna bat edukitzea illeko 2.100 euro kostatzen omen da, Espaiñiako zaar-etxeetan baiña euneko ogeita amazapi (%37) garestiago. 349.410 pezetala lengo dirutan eta zeiniek dauka modua ori pagatzeko? Izan leizke bakarren batzuk, baiña...?

Beste gauz bat ere esan bearra dago, izango dira etxean eduki ezin diran gertakizunak, baiña gure zaarrak errezegi etxetik bialdu nai ditugu gerok erosogo bizitzearren; jakifña, gero, diru-pilla ederrak bear eta or ibilliko ditugu izkutuko tranpa guztiak.

Askotan Udaletxeoangatik, Aldundikoangatik eta

abar, aundiak esaten jardungo gera, baiña guk merezi baiña obeak ez al dira sarritan? Zaar oiek zerbaiten ondasunik baldin badute, eskuratzen saiatuko gera, eta gero Udaletxe edo Aldundiaren kontura sartu naiko ditugu zaar-etxean. Ori iristen ez badegu, berriz, badakigu nortzuk diran txarrak eta gaiztoak.

Badakigu, etxean ez dau den erosotasunak daudela zaar-etxe oietan garbitasunetik hasita; ezagutu nun etxe oietako batean kapillau zegon apaiz bat eta arek esaten zun, etxe otzak zirala, etzitula beretzako nai. Zerbait esaten zula esango nuke.

Gaur modako jarri zaigu, ildakoaren ondoan lore-sorta ederrak eramatea eta jartzea;

"Gipuzkoako zaar-etxetan pertsona bat edukitzea illeko 2.100 euro kostatzen omen da, Espaiñiako zaar-etxeetan baiña euneko ogeita amazapi (%37) garestiago. 349.410 pezetala lengo dirutan eta zeiniek dauka modua ori pagatzeko? Izan leizke bakarren batzuk, baiña...?"

Bizirik zala ez ote ziran obeak? Aldatu dira ainbat oitura aldatu dira legeak, beti dirua tarteko dago ortik datoz naigabeak. Bizi naizela nik nai nituzke gorantzak eta loreak; ta il ezkerro errezo batzuk ez ote dira obeak?



Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA

Arrietxe

LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor eta apalidura tresnak.



Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea

Tel.: 943 651 189 - 943 653 462

Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-asegurak
Kotxe-asegurak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurak
Denda-asegurak
Erretiroak
Inbertsio fondoak

IRATZAR

Erlojutegia • Konponketak
Zilar gaietan berezitasuna
Diseinuko zilarra
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia
TOLOSA • Tel.: 943 674 615

ibarra
Argi-Lanak

Argi lanak, antenak
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181
Mobila: 639 72 42 60

Tolosa Bit
informazioa softwareak

Informazioa eta softwareak
Erreklamazioak, garbitasunak
Informazioa eta softwareak

Oria kalea, 14-behea -TOLOSA - Tel.: 943 676 156 - Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net - www.tolosabit.es

Aduna, Anoeta, Orexa eta Altzoko udalek onartu dute Osakidetzaren aurkako mozioa

HILABETE AMAITU AURRETIK, UEMAKO UDAL GEHIENETAN LANDUKO DUTE MOZIOA

Erredakzio Batzardea

Mozioaren bidez, udalek Osakidetzari eta EAEko hizkuntz politikaren arduradunei gogorarazi nahi diete udal-erri eta eskualde euskaldunetan osasun zerbitzua ematen duten langile guztiek euskaldunak izan behar dutela, eta eskatzen diete hori bete dadin eskura dituzten neurriak har ditzatela.

Hilabetea amaitu aurretik, mozioa osoko bilkuretan tratatzeko konpromisoa hartu dute eskualdeko UEMAKo udal gehienek. UEMAZ kanpo, eskualdeko beste udal batzuek ere interesa adierazi dute mozioarekin eta litekeena da haiek ere mozioa osoko bilkuretara eramatea.


Mozioa onartzeaz gain, UEMAKo udalek beste neurri batzuk ere hartu dituzte. Batetik, gutun bidez, Osakidetzako arduraduneri, EAEkoiei eta eskualdekoiei, gutuna bidaliko diete herri euskaldunetako euskaldunen hizkuntz eskubideak errespetatu dituzten, eta osasun zerbitzua euskaraz emateko neurriak har ditzaten. Bestetik, UEMAKo udalen helburua mozioaren edukia ahalik eta herritar gehienengana iristea denez, mozioa jendaurrean irakurriko dute maiatzaren

UEMAk proposatuta, Adunako, Anoetako, Orexako eta Altzoko udalek Osakidetzaren azken lanpostu deialdiaren aurkako mozioa onartu dute, udal guztietan aho batez. Izan ere, Osakidetzak ez du bermatu eskualdeko anbulatorioetan lanean hasiko diren langile berriak tratua euskaraz emateko gai izango direnik.

7an, arratsaldeko 19:00etan, Villabonako anbulatorioaren aurrean. Villabonako Euskal Herrian Euskaraz-ek babesa eman dio ekitaldiari, eta deialdia herritar guztiei zabaldu die.

Horrenbestez, UEMAKo udalek dei egiten diete euskalduneri euskaldun koherente gisa joka dezaten eta euskaldunen aurkako hizkuntza

politika beren egunerokotasunean sala dezaten, bai osasun zentroetan erreklamazioak jarriz, bai salaketak Behatokira bideratuz. Salaketak Behatokira bideratzeko bideak hauek dira: UEMAKo udal-letxeetara jotzea eta salaketa bertan jartzea, www.euskarentelefonoa.org web gunean edo 902194332 telefono zenbakian. ■



Herri Urratsera joateko autobusak

Maiatzaren 10ean, Herri Urratsera joateko autobusak antolatu ditu Galtzaundik eta bertara joateko, izena eman behar da Galtzaundik, Tolosako Nafarroa etorbidean duen egoitzan.

Autobusaren costea 11eurotako da (8 euro bazkideentzat). Goizeko 9:00tan irtengo da Tolosako tren geltokitik eta itzulera 19:00tan izango da. (Senperetik) Anima zaitetzte!

Informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 655 004 telefonora.

ALDATZ
Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispilluak
Beirate artistikoak
Dutxa-itxiturak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



BENTA ALDEA


JATETXEA

Tel.: 943 654 079
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

Turre, 4 (Mustad) 943 672 300
Amaroz, 21. 943 675 513
20400 TOLOSA



Bat, bi, hirurehun!

ALEZ ALE, HIRUREHUNGARRENERA IRITSI DA GALTZAUNDI ALDIZKARIA

Erredakzio Batzordea

Hilabetekari moduan egin zituen Galtzaundi aldizkariak lehenengo urteak. Oinarri sendo bat lortu zuenean, hamabostean behin argitaratzera igaro zen. Hori izan zen Tolosaldeko herri aldizkariak arrakastatsu gainditu zuen lehenengotariko erronka. Izan ere, aurretik apustu handiago bat egina zuen aldizkariak: sorre-
ra bera. Euskara taldean muxutruk lanean ari ziren zenbait lagun, borondate osoz murgildu ziren 0 alea ater-

Galtzaundi Euskara Taldea sortu eta hilabete gutxira atera zen argitara Galtzaundi hilabete-kariaren 0 alea. Geroztik, alez ale, urratsez urrats, egin du 18 urteko ibilbidea, 300. aleraino iritsi arte.

tzeko zereginean. Batek publizitatea lortu zuen, beste batek aldizkaria maketatu zuen, beste batek argazkiak bildu zituen, eta azken bat arduratu zen lehenengo ale horretako edukiak koordinatzeaz. Ordenagailurik ez zen, ezta gaur egungo imprimaketarik ere. Gero eta handiagoa zen lagun talde haren ilusioa nahikoa izan zen ordea, Galtzaun-

di hilabetero eskualdeko herri-tarren eskuetara iristeko.

Aldizkariaren maiztasuna ez ezik, Galtzaundi aldizkariak makina bat aldaketa izan ditu hirurehun ale hauetan: Aldizkariaren diseinua esaterako, hiru alditan berritu da, garai bakoitzera egokitzeko irudi, eta edukien antolaketa proposa bilatu nahian.

Azken 18 urteetan eskual-

dean zirrara eragin duten hamaika gertakariren berri eman du Galtzaundik. Beste horrenbeste izan dira bere proiektua ezagutarazteko bere orriak erabili dituzten herri-tarrak. Kontaezinak dira, Galtzaundi aldizkarian idatzi duten lagunak. Batetik baino, hirurehundik gertuago egongo dira! Zenbaki borobil hau ospatu, eta zergatik ez, elkar zoriontzeko, ondorengo orri hauetan oparitxo bat aurkituko duzue: 0tik 300era Galtzaundik ateratako ale guztien azala. 301. hemendik hamabost egunera. ■

(hurrengo orrian jarraitzen du)



0
Galtzaundi Tolosaldeko aldizkaria



1
Tolosa C.F.: Berazubín zaletu gutxi



2
Abuztuaren 17ko gizenak ez zuen kolesterolik




3
Lehiaketa? Gazta ala artzai



4
Elkartez elkarte euskarenen inguruan



5
Gure babarruna: mahai ganean nagusi



6
Feria: bailarako topagunea



7
San Blas itto arte arnas



8
Inauteri piztiok ernei



9
Papergintza krista



10
62.000 biztanle ospitalerik gabe



11
25 urte herria euskalduntzen



12
Lizartzako futbol harrobia




13
Pareak bai? Hiruxkiak ere bai



14
Nekazal turismoa baserriaren arnas



15
Amerika eta Europa kantuz elkarturik



16
Papergintza ondoren metalgintza krisian



17
Labaian, gure altxor preziatua



18
Sagardotegiak ugariatzu doaz inguruan



19
Hurrengo Inauterien zain




20
Lete berriro Tolosan



21
Denda txikiak irtenbide bila



22
Ikastolen aldeko apostua



23
Suaren gainean dantzan



24
Ainhoa Arjeta gure ahotsa munduan



25
Ibaiaren kanalizazioa eztabaidagai



26
Alde Zaharreko etxebizitzak ezbaian




27
Leaburu eta Gastelu banatzeko prest



28
Eguberri eta urte berri on!



29
Altzoko erraldoiaren ondorengoak



30
Urte askoan txapela kaskoan




31
Bailarako industria jokoan



32
Agur urbano zaharri



33
Amorruinak Orian




34
...eta goizaldean banatzuri zopa!



35
Abraham Olano: Anoetako ezpata



36
Txapelketa Leaburur, Arrospide Txapeldu?




37
Abesbatzen mundua gure eskuetan




38
Babarruna, bailarako ondasuna




39
Elizara aurpegi berria




40
Zakur lerak Ruandaren alde



41
Zeruko musika lurtean




42
Joxi eta Joxean ahaztu ezinik



43
Ibarrako Uzturpe ikastolak 25 urte



44
Alkate soinua



45
Gaua motzena, festa handiena



46
Juanma Lillo, primerako entrenatzailea




47
Agur burmisko Dinari




48
Ortzadarra Anoetako zeruan



49
Txotxongoien hariaren haririk



50
50 zenbakietan zuekin



51
Haize berriak eskoletara



52
Neguak zuritu ditu kontuak



53
Musikari erromantikoaren mendeurrena



54
Kirola, kaltegarria naturarentzat?



55
Hamaika komeria XIV orduetan



56

Euskaraz farre egin



57

Denbora galdu ez duen gizona



58

Ahotsa eta irudia



59

Abesbatza mundialak



60

Txotxongiloen magia ez blai




61



62

800.000 litro sagardo



63

Heriotzak ukitutako Inauteriak



64

Milaka pauso euskararen alde



65

Urtegia egiteko presa




66

Zilarrezko olimpiadak



67

Ingurua esagutzeko aukera



68

Euskara belaunaldiaren lokarri




69

Berto itzulia hastear



70

Bide berriak irekiz



71

Zergak lagunik ez



72

Kultur zakua bete-beterik



73

12.000.000 pauso izotzetan



74

Bukatu da akabo



75

Astebururo istorio berbera



76

Jimu Iturralde, kritika saria 98



77

Usturre etxeko mendia



78

Juan Garmendia seme kuttun



79

Juan Jose Agirre, herri oroimenaren bitzaila



80

Kilometroak 98 iritsi da egun handia



81

Bost kontinenteak euskaraz kantari



82

Txotxongiloen harietatik zintzilik



83

Denok aho batez Bai euskarari



84

Partaidetsa handiko hauteskunde sindikalak



85

Tolosako historia argazkitan



86

XXXIX. EH itzulia, has dadila ikuskitzuna!



87

Zumardi: 10 urtez naturaz gozaten



88

Herriak alkate bila



89

Gu oporretara goaz, eta zu?



90

Ecelesteko lekukoak eskutik eskura



91

Aitariera gure etxean



92

Mundu osotik taldean kantari



93

Kirol-guneen ordua



94

2000 efektua: Gaitzaundi hamabostekari



95

Aurrenartzean Gaitzaundi hilero bitan



96

Jaun Andreok gurekin... Mikel Laboa



97

Inauteriak 2000, has dadila festa!



98

Gazteei esker euskara ziztu bizian gora



99

Santa Mariako aztarnak iragana agerian



100

Zumardi 2000 garapena aztergai



101

Imanol Laskibar, batetik bestera munduan barrena



102

Lasa-Zabala auzia, justizia ezbaian



103

Dena prest XIV ordutarako



104

500 etxebizitza eraikiko dira Tolosan



105

Indartsu datoz Sanjoanek



106

Edukiontzia horia: birziklatzean urrats berri bat



107

Guk ere jai hartu dugu



108

Armando Roca, Europako azkarrena



109

Pangea: kontinenteen bihotzeraino



110

Antonio Zavala, seme kuttun



111

Kantu festa hastera doa



112
Plan estrategikoa
martxan da



113
Tolosatik Madrilerara
sukaldari



114
Txotxongiloak harituk
tiraka



115
Galtzaundiren
ospakizunetan murgildu



116
Mende berria
zain dugu



117
Antxon Bandres mendia,
afizioa eta ardura



118
Maite Artola, Bruselatik
datorren ahotsa



119
Inauteriak 2001:
hasteko Lizartzan



120
Sobrekamak balkoian
naramatenian...



121
Arantzasu Azpiroz,
Italia bidean



122
Apirilaren 2an iritsiko
da Korrika



123
Zumardiren
hosto berria



124
Euskara plana,
esku onetan



125
ZIG, integrazioaren
batxilergoa



126
Herri bat
selektzio bat



127
Edurne Pasaban,
zerutik gertu



128
San Joanak
hemen dira



129
AHT-ak kezka eragin du
eskualdean



130
Iraila arte oporretara
goaz



131
Anjelés Iztueta,
Jaurlaritzaren aurpegi
berria



132
Xabi Alonso, Errealaren
azken harribitxia



133
Thamer Birawi Tolosartu
den palestinarra



134
Mundu osotik euskaraz
kantatzena



135
Maite Iriarte, musikari
trebean artean



136
Titirijaiak Italia izango
du ardatz



137
Euromenaren atarian



138
Hona, hona, gure
Olentzero...



139
Hilaren 24an, Tolosan
izango dira Tubolo Pirritx
eta Porrotx



140
Sahararrei
lagunduz



141
Inauterietara denok
gonbidatuta!



142
Bizitzaren alde
minbiziazaren aurka



143
Martxoak 8, enakumea-
ren nazioarteko eguna



144
Baserri ekologikoetara
bisitak



145
Inigo Arruti solasean
Paristik




146
Etxe bila,
hau komerial!



147
Amaya Ross, Caribetik
Tolosara



148
Badatoz ibilgailu
klasikoak



149
Intxur, Burdin aroko
herrirra



150
Badugu
ospatzekorik!



151
Ameriketara bidaia
Olga Perezekin



152
Carlos Peña,
igerilariaren bidaiak



153
Anton Zubeldia,
Dominikar errepublikan
misiolari



154
Igor Garmendia,
Guatemalan ibiltari



155
Anjel Cuervo, abentura
bila, oinez, biszikletaz,
piraguaz



156
Bularren berregitea,
mastektomiaren ondorena



157
Heriotzari buruzko
gogoeta



158
Joxemari Iturralde,
liburu berri batekin



159
Kike Amonariz, gazte
lizkera astertzen



160
Eguberri on!



161
Jose Karrera:
Auto lasterketeki agur



162
Sexualitatea argazkitan,
Nerea Sancho



163
San Valentín, maitasuna
ospatzeko eguna



164
Inauteriak:
Sobrekamak balkoitan



165
Dioni Granado: hainbat
lekutan bidaia



166
Jon Altuna, Ibarako
futbolaria



167
Zeimuen Hizkuntza:
litzik gabeko
komunikazioa



168

Alergiak: gorputzaren neurris kanpoko erreakzioen sortzaileak



169

1936ko Tolosaldeko jusi-latuak eta desagertuak



170

Ibilgailu klasikoak Tolosan ikusgai



171

Eskualdeko herrien nortasuna berreskuratzen



172

Festa giroa Tolosan



173

Jesus Insausti, Uzurre, gertuagoitik ezagutzeko aukera



174

Iriisi dira opporrak!



175

Sahararrak eskualdean etxean bezala




176

Agintaldi berriaren lehen hilabeteak.



177

Bonberenearen 4. urterrena



178

53ko uholdeak gogoan




179

Behobia-Donostia lasterketan markak hausten



180

Giza eskubideak euskal presoengandik gero eta urrutirago



181

Doinu berriak jazz eta abesbatza uztertuz



182

Eskerrak Zuri Aipamen Bereziak




183

Xabier Zeberio, biolin doinuak sortuz



184

Ero-Etxe elkarteak: 25 urte Inauteriak ospatzen



185

Itigo Royorekin jolaslean




186

Lotsarik gabe, denok kalera!



187

Andres Etxeberria artzaina, garai berrietara egokitzuz



188

Tolosako etorkinak



189

Jonan Fernandez, Elkarriko ordeskaria



190

Saharar herrialdea bisitatzen



191

Asvinea, magiaren laborategia



192

Iran, ekialdeko atea zabaltzen



193

Lierni Armendariz, India espiritualak arnastuz



194

San Joan Jaia 2004



195

Martxaundi gaua, majjokoa



196

Nekazaritza ekologikoa ingurunearekin orekan



197

Marimi Ugalde, herriaren alde lanean



198

Oso elektikoaren uluak



199

Zein da azokaren osasuna?



200

Galtzaundi aldizkaria 200 zenbakira iritsi da



201

Txitxi Orbegozo, margogintzan eremu aske eta xamurra



202

Martxaundi gaua: azaroaren 26an Bonberenean



203

Txolarre Irratia, lau urte uhinetan



204

Eskerrak zuri, aipamen berrien edizio berria



205

Alurr: tradizioa berrikuntzarekin uztertuz




206

Jesus Aluna, ondare arkeologikoaren babeslea



207

Inauterien zirra



208

Idoia Elozegi, haurdumaldia eta artea lotuz



209

Mikel F. Krutzaga musika sortzen



210

Tolosako merkataritza aztergai



211

Tolosa, hiri euskalduna



212

Maiatzaren 1a, langileen eguna



213

Haurrak ere euskara bultzatzen



214

Kristautasuna 2005ean



215

Gatazka politikoa Lizartzan



216

Batelak San Joanetan



217

Nolakoak dira gaurko gazteak?



218

Nora goaz oportetara?



219

Joxemi Saizarren kazetalgintzan bidaiari




220

Etorkizuneko langileak



221

Gasteak munduari begira



222

Pirritx eta Porrotx, maitasuna zabaltzen



223

Euskal Herriko ardia munduan zehar



224
Osasuna zaintzen ote dugu?



225
Galtzaundi saharar errefuxiatu ginetan



226
Eskerrak Zuri, ondo merezitako aipamenak



227
Aitor Mendiluzerekin elkarrizketa




228
Erretzaileak legearekin erreta



229
TAO sistema sekreturik gabe



230
Kike Amonarriz MHLZ



231
Fede, Sergioren lagunik onena



232
Uzturpe Ikastolako hockey taldea



233
Edurne Pasaban, mendia eta bizitza uztartu nahian



234
Eskola-kirola eztabaidagai



235
Hodeiertz, Indian euskal doinuak zabalzen



236
Puntu bidezko karta



237
Anjela Kerejeta, Iparragirre matemindu zuen alegiarra



238
Festak hemen dira!



239
Udan ere musikaz blai



240
Jon Iraola, imitazio artearen erakuslehi



241
Zorionak Tólosa!



242
Alfonbra gorria errepide bazterrean



243
Artea antzerkia da



244
Jokin Bildarratz: etorkizuna eraikitzen



245
... eta etorkinek zer diote?



246
Euskadi Saria Xabier Olarrarentzat



247
Gure eskerrik beroenak



248
Joseba Usabiaga, antzerkigintzaren zezehetan



249
Sexuak gordetzen dituen kilima guztiak



250
AHT: Abiadura handia edo presakako handikeria?



251
Xurdirin paperetik pantailara oholizatik igaroz



252
Xabier Garikano Inauterietaz



253
Hegoalde: Babesle gabe baina ez jokoz kanpo



254
Hamabosgarrenaz Korrika



255
Mujika Itaolak Sagarnak Euskadin kaleratu du



256
Informatikaren bilgunea



257
Joxean Oiz: "Behat Dardo ez da Etxepareren biografia hutsa"



258
Hauteskundeak 2007



259
22 mendizaleren mendimiaz



260
Pello Zabala mintzakide




261
Kontinente txikian barrera



262
Itiaki Epelde, kolorearen eremuetan



263
Derbi historikoa bi protagonista ibartar



264
Erlea, bere bisiraupena izadiaren baldintzatsaile



265
Ana Arretxe, GITEEren iraganaz eta geroaz



266
Patsy Saizar, izenik gabeko herrian alkate



267
Pausoz pauso, etorkizuna parez pare



268
Eskerrik asko



269
Ion Garmendia, euskal musika bizibide



270
Gerontologiko berria, zahartzaro duinaren egoitza?




271
Xalbador Garmendia, euskara zuzenaren orraztaile eta langilea



272
Azoka, larinbatetako kolore eta bizia



273
Txotx denboraldiaren bihotzean, sagardogintza aztergai



274
Abastos, etorkizunari begira



275
Tolosako Orfeoia, hamar urtez kantugintzan



276
Euskarazko komikiak ikusgai




277
Ahanzturaren zuloak, egia azaleratzen



278
Mila esker, Axun



279
XIV orduko ibilaldia, mendizalaren erromesaldia



280

20 urte eta gero,
Groenlandia

281

Urte bat kontraanean



282

Iñaki Muiña, haurren
magia zizelkatuz

283

Eskualdeko ondare
historikoa ezagutzeko
ibilbideak

284

Bilobak, oroimen
historikoa berreskuratzen

285

Irailak 12-13
Bonberenea sutan

286

Krisalarekin jolasean




287

Gaurko eta biharko
oinarria

288

Luis Javier Zurutuza,
herritarren saltsaren
kronikari

289

Aldaba eta Urkizu
berpisten

290

Herri aldizkariak,
herritarrek eginak
herritarrentzat

291

Aitziber Sanasola,
Korrikaren atzeko aldean

292

Ibarra Galtzakomik
lehaketa, arrakastatsua

293

Hamar urte eszenatoki
gainean

294

Udal artxiboa arakutzen



295

Gizonak ez daude ixilik
egoteko

296

Tolosaldean inbertitzen



297

Artearen erakustoki
berriak

298

Ongi etorri euskaraz bizi
nahi dugunon herrira

299

Tolosa kantari,
euskar kantuzaleen
topaketa

300

295, 296, 297,
298, 299, 300!

300 aldiz, mila esker!

Aldizkaria edukiz bete duzuen kazetari eta kolaboratzaileei. Zuen egitasmoak kontatuz, gure orriak interesgarri egin dituzuen guztiei. Edukiak txukun txukun jarri eta aldizkariari aurpegi eder bat jartzan aritu zaretenei. Publizitatea kontratatzeko lan neketsuan jardun duzuei. Eta noski, euren negozioa herri aldizkari honetan iragarri nahi izan dutei ere bai. Zuzentzaileei. Argazkilariei. Imprimategiei. Aldizkaria banatzeaz arduratu zareten lagunei. Eta bereziki, Galtzaundi Euskara Taldeko familia osatzen duzuen, zuzendaritzako kide, langile, bazkide eta irakurleei.

TOLOSALDEA >>> APIRILAREN 25EAN IZANGO DA IRURAKO IKASTOLAREN ALDEKO RALLYA.

Badator II. Ñañarri Rallysprinta

laz erantzun ona izan zuela eta, II. Ñañarri Rallysprinta antolatzea erabaki du Irurako Ikastolak. Apirilaren 25ean izango da. Arratsaldeko 15:30ean irtengo da lehenengo autoa Alegiako irteeratik. Orendain, Abaltzisketa eta Amezketan zehar egingo duten ibilbidea, iazkoaren berdina izango da. II. aldi hau, Euskadiko Rallysprint Txapelketarako ez ezik, Nafarroarako ere puntuagarria izango da.

Leire Zubeldia

Kilometroak 2008 jaia zela eta, Irurako Ikastolaren aldeko ekintza gisa antolatu zen iaz I. Ñañarri Rallysprinta. Harrera bikaina izan zuen, eta Ikastolarentzat diru sarrera garrantzitsua izan zen. “Balorazio positiboa egin genuen. Ikuskizu-

na bikaina izan zen, eta jende ugari hurbildu zen ibilbidera. Antolakuntza aldetik berriz ez zen arazorik egon txikikeriaren bat edo beste kenduta. Pilotuak gustura geratu ziren lasterketarekin eta istripurik ere ez zen egon”, azaldu du Iñigo Iñurrita, Rallysprinteko antolatzaileak.

EUSKADI ETA NAFARROAKO PILOTURIK ONENAK

Errepikatzeke moduko esperientzia izan zenez, aurtengoa iazkoaren oso antzekoa izango da. Ibilbidea esaterako lehenengo aldiko bera da. Alegiatik atera, Orendain igaro, Abaltzisketatik pasa eta Amezketan amaituko da. Iaz ikusi ahal izan zen bezala, autoei abiadura handia hartzeko aukera ematen dien ibilbidea da, baina bihurgune itxiak ere baditu. Osagai guztiak ikusgarria izateko. “Orendaineko igoeran jende ugari batu zen, izugarrizko abiada hartzen baitzuten autoek.

Abaltzisketako herri sarreran ere pilatu ziren ikusleak, baita Abaltzisketatik Amezketera jaistean dagoen bihurgune itxian ere”.

Bigarren aldiak zerbait berria ere eskaini beharra dauka, eta iazkoarekin alderatuz izango ditu aldaketatxo batzuk. Ñañarri Rallysprinta, iaz bezala, Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango da. Berrikuntza zera da: Aurten, Nafarroako Txapelketarako ere puntuagarria izango dela. Hau dela eta, iaz parte hartu ez zuten pilotu berri dextente egongo dira, gehienak Nafarroatik etorriak. “Punta puntako pilotuak izango ditugu: Zapirain, Uzkudun, Alustiza... Denak dabilta sailkapeneko lehenengo postuen gatik borrokan”. 50etik gora izango dira Txindokipeko ibilbidea egingo dutenak.

15:30EAN AUTOAK IRTEERA PUNTUAN

Aprilaren 25ean, arratsal-

deko 15:30ean irtengo da lehenengo autoa Alegiako irteera puntutik. 14:00etan puntuan itxiko dute ibilbidea. Beraz, autoa zirkuitu barruko aparkalekuan utzi nahi izanez gero 14:00ak baino lehen egin beharko da. “Aparkalekurik handiena Orendain herrian egongo da. Hau egokia da lasterketa Alegialdean ikusi nahi dutenentzat. Abaltzisketa inguruan jarri nahi dutenek berriz, Larraitzen utz dezakete autoa. Bestela, Amezketan ere aparkatu daiteke”. Sarre-rak 8 euro balio du, eta 12 urtez azpikoek doan izango dute sarrera heldu batekin joaten badira.

Antolakuntzak aurreikusitako duenez, arratsaldeko 19:00etarako amaituta egongo da rallysprinta, eta 20:00ak inguruan Amezketako Plazan egingo da sari banaketa. Antolatzailak ohar batekin amaitu nahi izan du: “Norberak bere zaborrak bildu ditzala, eta txukun utz dezala ingurua”. ■





"Amstrong eta Contador: Izaera desberdinak izan arren biak dira irabazleak".

Balentin Dorronsoro, gihar eta buruen langilea

TXIRRINDULARITZA PROFESIONALAREN GAILURREAN HOGEITA SEI URTEZ, APAL ETA ERAGINKOR

Felix Aiestaran

Orbea eta eta Colchon CR-en elastikoarekin hiru urtez txirrindulari modura ibili zen. Masajista lanetan, beste hogeita hiru urtetan aritu da (Caja Rural, Paternina, ONCE, Liberty Seguros, Discovery Channel...). Azken bi urteotan Bruynnel-en Astana ahalguztidunean ari da. Paris-Nizan Alberto Contadorri eman dizkio masajeak eta talde beretan izango du Tourrean Lance Armstrong erraldoia.

Autobusa gidatu, janaria pres-tatu, masajeak eman... Denetik

Balentin Dorronsorok (Albiztur, 1959) bere sorterrira bizikletaz itzuli behar zuen aldiro bideko malda latza igo behar izan zuenean, ez zuen amestu ere egingo, txirrindulari modura eta masajista lanetan bizikletari loturiko ibilbide profesionalean kategoriaz kanpoko gailur oparoenak eskura izango zituenik. Bere eskuetatik pasaz, besteak beste, Lance Armstrong maillot horiduna. Bidean adiskide ugari egin ditu, baina Manolo Saiz izan da bere alboko bidaide urte luzeotan.

egin behar izaten du txirrindularitzaren mundu koloretsu eta bihurrian. Herrialde ezberdinetako jendearekin egon behar izaten du, eta euskaraz gain, gaztelaniaz, frantsesez, italieraz, ingelesez eta alemaneraz moldatzen da. Parisera iritsitakoan

etxera bueltatzeko gogoia izaten du, nahiz eta Tourra bi aldiz, Armstrong-ekin 2005ean eta Contadorrekin 2007an, irabazi duen arren. Zurrunbilo horretatik atsedean hartzeko Albizturko bere etxera itzuli, eta bere sendiko Elane ostatuan, txikitan ari-

tzen zen modura, herritarrekin hitz egiteko aukera ez du gal-tzen.

Urtero bolantean egiten dituen milaka kilometroak, xamurragoak egingo litzaizkioke, berak gidatutako hegazkinez egingo balitu. Buru gainetik zerua zeharkatuaz doan hegazkinaren zarataz, begirada jasotzean, gogoan izan, bertako gidaria Balentin bera izan daitekeela, hegazkin pilotu titulua ere bai baitauka.

Zein oroitzapen dituzu haurtzaroko Albiztur hartaz?

Herriko eskolan berrogei bat mutil eta beste horrenbeste nes-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

ka izango ginen. Bost urtetik hamalau urtera arte maisu eta maistra berarekin aritu ginen. Hautzaroa oso pozik bizi izan genuen. Habi bila, harriekin jolasean... Albizturrik ez ginen asko mugitzen. Gure ostatuan herriko jendea biltzen zen. Etxean telebista jartzerako hamai-ka urte izango nituen. Udaletxean herritar batek oparitutako telebista zegoen eta baita erre-tore etxean ere. Batetik bestera ibiltzen ginen umeak telebista ikusteko.

Zenbat urterekin erosi zizuten lehen bizikleta?

Etxean ziren bizikleta zahar-ekin ikasi nuen bizikletan ibiltzen eta hamahiru urterekin erosi zidaten lehen bizikleta. Hama-



sei urterekin, Ordizian tailerra zuen ziklo-krosean ibilitako Jose Mari Gonzalez ibartarrak animatu ninduen, txirrindularitzan aritzeko lagunak bilatu zizkida-la esanaz. Jubenil eta afizionatu mailan entrenatzen genuenean ez zegoen gaur eguneko entrenamendu zientifikorik.

Entrenamenduetan kide askok laguntzen al zizuten etxerakoan aldapa gora?

Beti ez, baino askotan izaten huen bateren bat Albizturko bidegurutzera inoiz laguntzen zidana, gehixeago egin nahi zuelako eta kontutan gustura gentozelako. Etxerako aldapa orduan gogorra egiten zitzaidan, baina gaur egun gogorragoa egiten zait.

Nolakoa izan zen profesioalera iristeko ibilbidea?

Afizionatueta 1978-79an aritu nintzen, 1980an Kanarietan soldaduska egin nuen. Itzulita-koan beste urtebete afizionatuetan egin nuen Azkar taldean. 1984an profesioalera egin nuen jauzi. Orbean ibili nintzen lehen urteetan. 1986an Valentziako Colchones CR-ra pasa nintzen. Hiru urte horietan profesioaltasunera iristeko nuen helburua bete nuen; proba egin nuen, eta jabetu nintzenez ez nuela behar besteko ahalmenik bertan segitzeko, hogeita zazpi urte betetzeko nituela utzi egin nuen. Ez nuen pena berezirik sentitu.

Txirrindularitzaren harrak ederkiki heldu zizun hala ere...

Hirugarren urtea sobran izan nuen ez nuelako korri egiteko aukera handirik. Masaje eskolan ikasten aritu nintzen eta 1977tik 1979ra Txomin Perurenaren Caja Rural bihurtua zen Orbean aritu nintzen masajista lane-tan. ONCEn 1980an hasita hamalau urte egin nituen. Urtebete Libertyn egon nintzen eta 2005ean Discovery-ra pasa nintzen 2007ra arte. Azken bi urte-ak Astanan egin ditut.

Zu aritu zinen garaitik zer aldatu da gaur eguneko txirrindularitza profesionalean?

Dena aldatu da. Nire garaian, itzuli handi bat egiteko, hamar txirrindulari, bi mekaniko, bi masajista, zuzendaria, furgoneta bat eta bi kotxerekin joaten ginen. Gaur egun, bederatzi txirrindularirekin, lau masajista, hiru mekaniko, sendagilea, bi zuzendari, autobusa eta materiala eramateko kamioia (bizikleta bat izan beharrean, bakoitzak hiru izaten ditu) behar izaten dira.

Zertan aldatu da korritzeko era?

Ez da horrenbeste aldatu. Orain askoz kontrolatuago dago lasterketa. Zuzendariak eta txirrindulariak momentuan informazio gehiago dute lasterketaren egoeraz, erabaki zuzenenak hartzeko.

Nola bizitzen da egunerokotasuna inguruan horren izen handiak dituzula?

Oso normal. Zu barruan zaudenean, egun osoa berarekin zaude, lanean ari zara eta normaltasun osoaz bizi duzu.

"Oraindaino frantsesa zen nagusi. Orain inglesa nagusitzen ari da. pelotoian."

Lance Armstrong-i masajea emate-rakoan zer sentitzen da?

Nik ez diot Armstrong-i inoiz masajerik eman, berak bere masajista du. Taldean egonda berarekin harreman normala izan dezaket. Nik ere zeregina dut taldean eta partaide bakoitzak bere zeregina bete behar du. Taldeko bi txirrindulari ematen dizkiet masajeak. Paris-Nizan Benjamin Nogali eta Contador-i eman nizkien.

Manolo Saizekin harreman estua izan duzu...

Berarekin hamalau urte egin ditut. Horrenbeste denbora batera egiteko gustura egon nintzenaren seinale...

Txirrindulari bat egun batean jota iritsi eta hurrengoan fresko-fresko ateratzea posible al da?

Bai horixe! Posible da. Horretarako entrenatzen dira. Ondo jan, edan, atsedean hartu eta ez dago beste sekreturik.

Masajeak buruari ala giharrei eman behar izaten dizkiezu?

Txirrindularia jota iristen denean, psikologo moduan ere zerbait egin behar izaten dugu. Hainbeste ordu batera bizituta, beti dago tratua, eta konfiantza izaten duzu, bere zaletasunez, familiaz, hitz egiteko.

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

ZALBIDE

Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baserría - Abaltzisketa
Tel.: 943 652 176

Joseba
Iturgintza
600 561 782

Iturgintza • Gasa • Berokuntza



ONAK
MARMOLAK, S.A.

Mota guztietako lanak:
Granitoan marmolean eta
beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Saila, 1 • URDUETA
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613

Amstrong eta Contador. Zer nabarmenduko zenuke bi txirrindulari hauengan?

Izaera desberdinak izan arren biak dira irabazleak. Zer nahi duten ongi dakitenak eta horretarako lan handia egiten dutenak. Zulle, Jalabert, Olanorekin aritu izan naiz eta denengan txapeldun izateko gaitasunaz gain, oso saiatuak izatearena azpimarratuko nuke.

Zein da hizkuntza nagusia pelotoian?

Oraindaino frantsesa izan da nagusi, baina orain gaztelania ere asko erabiltzen den arren, pelotoian ingelesa nagusitzen ari dela ematen du.

Euskara entzuten al da pelotoian?

Nik taldean Haimar Zubeldiaren eta Kepa Zelaia medikuarekin euskaraz egiten dut. Hemen go taldeetan, Caisse d'Epargne-en esaterako, beti izaten da norbait euskaraz aritzeko aukera ematen duena.

Ez al da arriskutsua Armstrong-en itzultzeko apustua?

Bai, baina ondo prestatuta dagoelako eta konfiantza duela itzuli da. Bera oso ona da.

L'Equipe-k duela hamar urte Armstrong-ek EPD-an positiboa eman zuela argitaratu zuen...



"Euskal txirrindulari zalego txirrindularitza oso ondo ezagutzen duena da eta txirrindulari guztiak berdin errespetatzen ditu, bertakoa edo kanpokoa izan".

Inongo kontroletan ez zuen positiborik eman. Ez dakit zergatik argitaratu zuten. Egunkari gehiago saltzeko, beharbada.

Nola bizi duzue doping-aren susmo-paean egon beharra?

Nahikoa normal bizi dugu. Beste kiroletan baino kontrol

gehiago egiten dira. Nik ez dakit arazoa txirrindularitza den edo norbaitek interesa ote duen txirrindulariak kirolari gaizto modura azaltzeko. Gai nontzeko kiroletan hainbeste kontrol egingo balute, kasu gehiago izango lirateke, nire ustez.

Ba al duzu Tolosaldeko txirrindularitzaren berri?

Ahal dudana jarraitzen dut. Horbada Amasako Ugaitz Artola oso ona dena, baina gaur egun gure garaian baino zailagoa da talde profesional batera pasatzea. Duela hamar urte, hamar-hamaika talde baziren eta aukera handiagoa zegoen. Nahiz eta hobea izan, gaur egun ez da erraza profesioaletara pasatzea.

Zer sentitzen da Pirinioak ikurrinez josita zeharkatzean?

Beti da pozgarria etxe ingururik pasatzea. Nahiago izaten dut Pirinioak Tourraren bukeran pasatzea. Euskal txirrindulari zalegoak txirrindularitza oso ondo ezagutzen du eta txirrindulari guztiak berdin errespetatzen ditu, bertakoa edo kanpokoa izan. Kanpoko zaleek bereak ez diren txirrindulariak iraindu egiten dituzte. Duela pare bat urte edo, gora behera batzuk izan ziren Pirinioetan, baina nik zalantzak ditut, bertan zirenak txirrindulari zaleak ote ziren.

Zein asmo dituzu?

Epe luzera begira ez dut asmo jakinik. Aurtengorako eta datorren urterako badut kontratua Astanarekin.

www.citroen.es

CITROËN C3 PICASSO BERRIA SPACEBOX-A





CITROËN C3
9.100€-tik
+ ARRISKU OSORAKO ASEGURUA DOAINIK (1)



CITROËN C3
11.900€-tik
+ ARRISKU OSORAKO ASEGURUA DOAINIK (1)



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

LEKUARI PROBETXU ATERATZEKO AUKERA HOBERENA

GAINERA, %0A MATRIKULAZIOKO ZERGAN: C1 / C2HdI / C3HdI / C4HdI 90/ 110 / 110 CMP

Kontsumo mixtoa (L/100 Km.) / Jaulkipena CO2 (grs./Km.): C3 Picasso: 4,7-6,9 / 125-159 C3: 4,3-6,1 / 113-145 C4: 4,4-6,9/117-125

Comendatutako salneurria: C3, 1i Furio, C4 1.4 16v 90 cv Coupé. (BEZA, matrikulazio zerga, garraioa eta eskaintza barne). Hilebete bukaera bitarte baliagarriak, stock-ean dauden autoentzat. Penintsulan eta Balearretan bezero partikularrei operazioen parte hartzen duten ohiko tokietan. Irudietako argazkiak: C3 exclusive, C4 exclusive plus. (1) Arrisku osorako aseguruia franktziarekin (3600ko 25 urte gorakoentzako eta 6000ko 25 urte behararazentzako) lehenengo urtean barne. Zurich konpainiarekin eta PSA Finance Sucursal Espainian-ek eskeintza eta bitartekaritza, adin mugarik gabeko partikularrei. C4 edo C3 finantzialzen duten bezeroei, 5000€ko kapital minimoa (PLAN VIVE-tik kanpo).

IROVI S.A. KONTZESIONARIO OFIZIALA CITROËN INDUSTRIAL GUNEA Z/G. TEL.: 943 65 18 42. ANOETA/TOLOSA

TOLOSA >>> URTEKO KUOTA XUME BATEN TRUKE, EDONORK ERABILI AHAL IZANGO DU OARGIKO ROKODROMOIA

Oargiko rokodromo berria, her

lazko irailean hasi ziren Oargi Mendi Elkarteko kideak rokodromoa handitzeko lanetan. Ia sei hilabeteko lan gogorraren ondoren, erabiltzeko prest dago. Ahalik eta probetxu gehien atera nahi diote rokodromoari. Horregatik, eta bide batez, eskaladarako zaletasuna bultzatzeko, Oargi elkarteko bazkide ez direnek ere, rokodromorako sarrera libre izango dute, urteko kuota xume bat ordainduz.

Erredakzioa

Aurreko Galtzaundin Usabal kiroldegian berriki zabaldu duten rokodromoari buruz hitz egin genuen. Oraingo honetan, Tolosan eta Tolosaldean egin zen lehenengo rokodromoaz jardun behar dugu: Oargi Mendi Elkartek, bere egoitzan duenari buruz, alegia. Duela hamalau urte zabaldu zuten boulder-a. Denborak eta emandako erabilpenak hondatu egin dute, eta elkarteko kideak konponketa lanetan aritu dira burubelarri. Zaharberritzeaz gain, eskalada eremua zabaldu egin dute. “Lehenengoaren bikoitza da orain. Zabaleran irabazi du gehien, eta sabaia ere jarri diogu”, azaldu dute elkarteko kideek. Dagoeneko erabili daiteke.

GUZTIENTZAT ATEAK ZABALIK

Rokodromoa berria da, eta baita bertan eskalatu ahal izateko bidea ere. Izan ere, bertako rokodromoan eskalatzeko ez da beharrezkoa elkarteko baz-



Oargiko rokodromoak zabaleran irabazi du gehien bat. Sabaia ere jarri dizkiote. Lehenengoaren bikoitza da orain eskalatzeko eremua.

kide izatea. Oargi, mendi elkartean federatuak daudenek, eta elkarteko gastronomikoko bazkide direnek osatzen dute. Orain, hirugarren bazkideza mota bat atera dute: “Rokodromoko bazkideza” deitu dakioke. “Orain arte, elkarteko giltzak soilik bazkideek izaten zuten. Baina

soilik rokodromoa erabili nahi baduzu, zertarako egin behar duzu elkarteko gastronomikoko bazkide?”. Honenbestez, elkarteko zuzendaritzak, rokodromoa erabiltzearen truke kuota bat jartzea erabaki du. Kuota ordaintzen duten guztiei elkarteko giltzak emango zaizkie. Era

honetan, nahi dutenean eskalatu dezakete, inongo ordutegiren menpe ibili beharrik gabe. Oargin federaturik daudenek 32 euro ordaindu beharko dituzte urtean, eta gainontzekoek 50 euro. 22 urtez azpikoek berriz, 5 euro besterik ez dituzte ordaindu beharko. Kuotekin

D BERRIA

Erritar guztientzat zabalik



jasotako dirua, rokodromoa berritzen egin duten inbertsioa orekatzeko eta menu gastuetarako erabiliko dute.

GAZTEAK ZALETUZ

Kuota xume hauen atzean, eskaladarako zaletasuna sustatzeko asmoa dago. Batez ere gazteen artean zabaldu nahi dute afizioa. “Hain zuzen ere horregatik hartu genuen rokodromoa berritu eta handitzeko erabakia. Azkenaldian jende gutxi zebilen”. Inguruko ikastetxeekin hitz egin eta eskola kirol moduan eskaini nahi dute eskalada. “Ikastaroak eskola orduetatik kanpo emango genituzke. Gaztetxoentzako materiala ere badugu. Hurrengo pausoa ikastetxeekin harremanetan jartzea da”, azaldu dute. Bestalde, eskalatzeko ikasi nahi dutenei zuzen-

duta, ekainaren 2tik 7ra oinarriko eskalada ikastaroa izango da.

196,06 M²-KO AZALERA

Egungo rokodromoak 196,06 m²ko azalera dauka. Hauetatik, 122,27m² pareta bertikal arrunta dira, 44,29 m² jausia du eta 25,5 m² sabaia. Pareta hauek, presa eta txapa bidez osatuta daude, boulder-az gain 5-6 m altuera duten paretetan gora egin ahal izateko.

USABAL ETA OARGI, OSAGARRIAK

Kasualitateak hala nahi izan duelako aldi berean zabaldu dira Tolosako bi rokodromoak. “Irailean rokodromoa berritzeko lanetan hasi ginenean ez genekien Usabalgo rokodromoa urte hasieran zabaltzekoa zenik. Urte

mordoa zeramatzaten rokodromoa egin behar zela eta ez zela, baina inoiz ez zuten aurrera egin”. Udalak rokodromoa egiteko erabakia hartu zuenetik zabaldu den arte denbora tartetxikia igaro dela esan dute, enpresa bati eman baitiote eskalada eremua eraikitzeko lana. “Oargin ordea, esfortzu ekonomikoaz gain, ahalegin pertsonal handia egin behar izan dugu, geure asteburu eta jai egunak sakrifikatuz”.

Dena den, inondik inora ez da kalterako Tolosan bi rokodromo egotea. Oargiko kideen hitzetan, elkarteko rokodromoa eta kiroldegikoa osagarriak dira. “Usabalen altuera handia hartzeko aukera dago, baina hemengoa boulder-a egiteko egokiagoa da”. Bestalde, Oargin eskalatzailak nahi duen ordu eta egunean eskalatu ahal izango du, eta jende pilaketarik gabe. Presak mugitzeko ere kiroldegian baino askatasun handiagoa eskaintzen dute.

Tolosako mendi elkarteak behin eta berriz azpimarratzen du, rokodromoa herriko eta eskualdeko zaletu guztientzat dagoela zabalik. Eskalatu nahi duten guztiei luzatu nahi diete gonbita. Eurekin harremanetan jartzeko bideak dira ondorengoak: 688.698.642 mugikorra, edo info@oargi.org posta elektronikoa. ■

Martin Eceizabarrena
 Instalazio erreforma
 Konponketak
 Igaralde, 11 - Tolosa
 Tel.: 943 672 445
 Mobilak: 608 774 822

SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

SHANTI
 kirolak
 Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

ANOETA >>> XIX. MENDE HASIERATIK GAUR ARTEKOA GOGORATU ETA EZAGUTARAZIKO DUTE ANOETARREK L

Memoria dantzan Anoetan

Beti irakasten dute ikastolan munduaren bi heren ura dela eta heren bakarra lurra.

Heren hori bost zatitan banatuta dagoela ikasi dugu eta zati bakoitzak kontinentea dela. Kontinente bakoitzak bere izena du. Gurea Europa da, eta Europako hegoaldean penintsula bat dago eta hor iparraldean Euskal Herria dago. Munduaren iparraldean beraz. Handitik txikirako bidean ikusiko dugu euskal herria itsaso, basamortuz eta mendiz osatuta dagoela. Urdina, horixka eta berdea. Euri tantekeremu horren iparraldean beti dute lekutxo, horregatik eusten dio berdetasunari beti berde. Eta berdetasun berezko horretan bizi gara gu: Anoetan, ez ipar eta ez hego, euskal herriaren erdialdean. Non dagoen badakigu, ez da zaila, nola dagoen eta nola egon den ordea?.

Kokatu dugun lur zati horretan gu baino lehenagoko jendea bada, eta entzundako pasarte eta idatziriko liburuek egia badiote behintzat, iragan korapilatsu bezain bitxiaren eszenatokia zapaltzen dugu egunero. Izan ere, beti esan izan baita mundu hau pertsona ezberdinez osatua dagoela, eta ondorioz, pentsaerak era ezberdinak. Eta hala, beti dago norbait albokoa egokia iruditu ez eta berea hobea delakoan berea ezarri nahi duenik. Horretarako zuzenek hitz eginda lortzen dute ideiak aurrera ateratzea gero armekin defendatzeko eta okerrenek armekin lortzen dituzte ideiak gero hitzekin defendatzeko. Ba horrelako gertakari ezberdinen testigu izan zen Euskal Herrian kokatutako Anoeta herria ere.

Izan ere opariak ekartzen ez dituzten Espainiako errege horien

gora beheran liskarrak eta istiluak sortu ziren Euskal Herrian, denborarekin III. Karlistada izenez ezagutua izan dena. Garai hartako Euskal Herriarrek Espainiar erregetza baina gehiago zuten jokoan: Foruak. Karlos VII nak boterea hartu zuenetik Euskal Herrian liskarrak hasi ziren Karlista eta Liberalen artean. Hasi- ra batean Karlistak ia Euskal Herri osoaren jabe izan ziren baina ez zuten hiribururik hartzerik lortu. Hainbat erasoaldiren ostean, 1874. urtean Bilbo 125 egun ez erasotu ondoren Karlistek atzerantz egin behar izan zuten. Atzerapauso horrek 1876 arte jarraitu zuen 1876ean guda amaitu eta Euskal foruak abolitu ziren arte.

Espainiar erregearen gainetik, Euskal Herriak gauza gehigo ere jokatzen zituen guda horretan. Ba, guda horretako pertsonaia nagusi edota garrantzitsuenetako bat Santa Kruz apaiza izan zen, Elduainen jaio eta Hernialden jarduten zuen apaiz Karlista, bera izan zen III Karlistada horretan Karlisten ikur garrantzitsuenetako bat.

Orain arte kontatu ditudan gertakari hauek badute zer ikusi handia, Anoeta herrian, 1872. urte inguruan jazotakoarekin. Santa Kruz apaiza Hernialden zegoen apaiz eta bazituen Anoetan gerrilarako lagun karlistak. Anoetan garai hartan Jakas izeneko bat zen alkate (agiritan ez da izen deitura gehiagorik ageri). Tratantea zen, liberekin ondo moldatzen zen eta lanari esker inguruko mugimenduak ondo ezagutzen zituen. Santa Kruz apaiza salatu egin zuen (hala dio Santa Kruz berak bere memoria idatzietan) eta apaiz gerrilleroak alkate salaria hil egin zuen. Liberekin mendekuz eta Anoetako apaizak zerikusia izan zuelakoan, berta-

Anoetarrek aurten, ahalegin berezia egin dute herriaren historia ezagutzeko eta ezagutarazteko. Paperak miatuta iraganean arakatu dute, "Historia" hizki larritz agertzen den garaia. Herriarrei galdetuta, testigantzak jaso dituzte, mende erdia duen historia, hizki txikiko "historia" xumea. Herriarrek gaur zertan diren eta zer egiten duten ere erakutsi nahi dute, eta horregatik antolatu dute jendaurreko emanaldi berezia, herriarrentzat eta korpugetako festa giroan. Herriaren lau aro azalduko dituzte beste hainbeste agerraldietan. Anoetan memoria dantzan.

*Iraitz Peñagarikano
Nekane Peñagarikano*

AU ADIERAZPEN ARTISTIKO EZBERDINEN BITARTEZ

ko apaiz errugabea hil zuten. Egun berean beraz, Anoeta alkatetik eta apaizarik gabe geratu zen.

Ohiartzun eta eragin handiko gertakaria izan zen hura Anoeta bezalako herri batean. Gerra hura amaiturik urte zail eta korapilatsuaren aurrean murgildu zen Anoeta eta Euskal Herria bere osotasunean. Espainiar inperioaren azken ikurrak erori ziren 1898. urtean azken koloniarik gabe geratuta: Kuba eta Filipinak kasu. Gainera aldaketa politiko berriak ere etorri ziren lehen errepublikarekin eta baita Primo de Riveraren diktadorekin. 1930. urterarte iraun zuen, 1923an hasita.

Euskal Herria kokatuta dagoen penintsula horretan gizartea berriz ere bitan banatua zegoen, ezkerren eta eskuinaren artean. Azkenean pertsonaia txiki batek zerbait handia egin nahi zuen eta ondorio latzak eragin zituen bere handinahian. Euskal gizartea berriz ere armak hartuta lubakietara pasatu zen anaien arteko liskar eta gerra zibilean. Hala ere, izan zen beste bide bat aukeratu zuenik eta herria utziz erbestera jo zuten: haietako batzuk lehen jaunartzea oraindik egiteke zuten, eta halaberrez untziratu zituzten.

Gudazibila amaiturik, aro berri bati eman zion hasiera Euskal Herriak: Oria ibaiari kolorea eta aparra eman zizkion industrializazio garaia. Hemen ekin zion

Anoetak bere poliglota faseari, Espainiatik lan bila etorritakoak ez baitziren gutxi izan. Orduan ondo komunikaturiko herriek izugarritzko hazkundea izan zuten populazioaren aldetik, eta inguruko hainbat herritxohustu egin ziren, eta hutsune hori jasan zuen euskarak ere.

Inposaketari men egin gabe hizkuntzaren eta hezkuntzaren alde lan egin zuten herritarrek baita klandestinitatearen bidezidorrak hartuta ere. Lokal txikiak ireki ziren: ikastolako lehen gelak. Eta urteetan euskeraren bidea eginez, gaurko Anoetako Herri ikastola da

horren lekuko. Orduko auzolanaren ondorio da Anoetako gaurko herritartasuna. Orainak lehen du oinarri eta orainak geroa du ondorio. Eta hala, munduak mundu izaten segituko du, Anoetako ikastolan azalduz munduaren heren bat lurra dela eta bi heren ura. ■

LABURMETRAIA

Lehen agerraldia laburmetraia izango da. Karlista garaian gertatutako pasarte trajikoa biltzen da bertan, 1872. urte ingurukoa. Santa Kruz apaiza Hernialden zegoen apaiz eta bazituen Anoretan gerrilarako lagun karlistak.

tako apaiz errugabea hil zuten. Egun berean beraz, Anoeta alkatetik eta apaizarik gabe geratu zen.

IKUSENTZUNEZKOA

Bigarren agerraldian, Anoetako beste aro bat kontatuko dute ikusentzunezko baten bidez. Joan

berreskuratzeko Sharing European Memories (SEME) egitasmoren barruan dago.

BERTSO ANTZERKIA

Hirugarren agerraldiak 60eko hamarkadaren azken urtea hartu du aintzat. Ikastolaren aldeko mugimendua eta sorrera irudikatuko du. Bertso antzerkia izango da. Anoetan ikastola izan zedin gurasoek eta gazteek, elkarrekin egindako ahaleginak kontatuko ditu.

DANTZA

Laugarren aroa, bizi dugun hauxe da. Anoetan badago musika eskola, Loatzo mankomunitateko kide baita herria. Musika zaletasuna, musikariak, musika zaleak, dantzariak, dantza eskola. Grafismoa gustuko duena... Herria bizi-bizirik dago, eta egungo dantzaren muestra eskainiko dute, egun horretarako apropos egin dute koreografia. Dantza pauso zaharrak eta berriak, lehen goaren arrastoan dator berria. Anoetan memoria bakarrik ez dantzan.



Laburmetraiaaren grabaketako une bat.

Anoetan garai hartan Jakas izeneko bat zen alkate. Tratantea zen, liberalekin ondo moldatzen zen. Santa Kruz apaiza salatu egin zuen, eta apaiz gerrilleroak alkate salataria hil egin zuen. Liberalek mendekuz eta Anoetako apaizak zerikusia izan zuelakoan, ber-

den mendean erdialdean izandako industrializazioa eta horrek eragindako etorkinen etorrera biltzen du. Benetako protagonisten testigantzak bilduta DBHko 4.eko ikasleek ikusentzunezkoa prestatu dute. Ikusentzunezko hau Europa mailako memoria

Zumardi
SEGURAS
WILBAO

Aholkularitza integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

JANTZIAK

OSKI

einetakak

Nafarroa Etorbidea, 11
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA

Galtzaundiko kultur ekitaldiak

Irakurri, gozatu eta oparitu

Apirilak 23tik Uztailaren 25era Irakurri, gozatu eta oparitu
Tolosako udal liburutegian



Apirilak 23
Idoia Sanchez
ABALTZISKETA
17:15etan liburutegian
Ipuin Kontalaria
AMEZKETA
18:30etan liburutegian

Apirilak 24
Martxaundi V
TOLOSALDEA
Izen emateko
azken eguna

Apirilak 30
Idoia Sanchez
BIDEGOIAN
17:15etan liburutegian
Ipuin Kontalaria
ALBIZTUR
18:30etan liburutegian

Maiatzak 14
Idoia Sanchez
IBARRA
17:00etan liburutegian
Ipuin kontalaria
BERROBI
18:30etan
liburutegian

Maiatzak 21
Idoia Sanchez
ALEGI
17:15etan liburutegian
Ipuin Kontalaria
ORENDAIN
18:30etan liburutegian

Maiatzak 12
Kultur Errota
ALTZO
17:30etan Lizarbeko gelan
Zenbat gara antzerki
taldearen
"Ino. Ino, ino badator
Bonbardino."
Haurrentzako ikuskizuna



IRAKURZALETASUNA >>> EUSKARAZ IRAKURTZEAK ABANTAILAK IZANGO DITU TOLOSAN

Irakurri Gozatu eta Oparitu

Euskara Elkarteen Topaguneak antolatuta, Euskal Herriko herri-ugaritan jarriko da martxan Irakurri Gozatu eta Oparitu egitasmoa. Aurten, lehenengo aldiz, Tolosan ere egingo da Galtzaundi Euskara Taldearen ekimenez.

Leire Zubeldia

Irakurri Gozatu eta Oparitu, irakurzaletasuna sustatzea helburu duen egitasmo berri-tzailea da. Aurreko aldiak Euskal Herriko herri ezberdinetan izan zuen erantzun ona ikusita, eta Galtzaundik, egitasmoaren helburu eta irizpideekin bat egiten duenez, Tolosara ekartzea erabaki du. Tolosako liburutegiekin eta Elkar liburutegiarekin elkarlanean gauzatuko du proiektua.

FUNTZIONAMENDUA

Apirilaren 23tik, (liburuaren nazioarteko egunetik) uztailaren 25era, Tolosako edozein udal liburutegitan euskarazko edozein liburu maileguan hartu eta irakurri egin behar da. Liburua itzultzean, liburuzainak emandako fitxa bete behar da, liburuari buruz iritzia eman ez. Adin tarte bakoitzeko fitxa bana egingo da, eta txikienez

kasuan heldu batek beteko dio formularioa.

Fitxa betetakoan, liburuzainak opari-txeke bat emango dio irakurleari. Honekin, %25eko deskontua egingo diote Aroztegieta kaleko Elkar liburu-

dendan euskarazko edozein liburu erosterakoan. Gainera, Galtzaundi Euskara Taldeko bazkideek beste %25eko deskontu gehigarria izango dute, aurrekoarekin metagarria izango dena. Deskontuak inoiz

ezingo du 25 euro baino gehiago izan.

LIBURU GOMENDAGARRIEN ZERRENDA

Topaguneak, euskarazko 100 liburu gomendatzeko eskumena ere hartu du. Uxue Alberdi idazleak osatu du 90 liburu gomendagarriren zerrenda. Galtzaundi Euskara Taldeak, beste hamar liburu gomendagarri gehitu dizkio zerrenda horri. Zerrenda honetan, adin tarte guztietarako egokiak diren liburuak sartu dira. Zerrenda hau, Irakurri Gozatu eta Oparitu egitasmoaren web gunean kontsultatu daiteke.


IRAKURZALETASUNA SUSTATZEN

Egitasmo honen helbururik behinena irakurzaletasuna bultzatzea da. Baina honetaz gain, xede gehiago ere ukitzen ditu: Euskararen erabilera gozagarria bultzatu nahi da, eta kulturak eman dezakeen plazera aldarrikatu. Bestalde, euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtu nahi dira. Egitasmoa aurrera eramango dutenen elkarlana ere jada baba lortutako helburu bat. Eta azkenik, Irakurri Gozatu eta Oparitu programaren bidez, euskarazko liburuen ekoizpena eta salmenta sustatu nahi dira. ■



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



**Errrotatxo
Okidegia**

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

TOLOSA >>> PERKUSIO AFRO-BRASILDARREKO IKASTAROA ANTOLATU DUTE MULAMBOREN FAMILIA HAZTEKO

Mulambo, brasildar erritmoak

2000. urtean, Mulambo perkusio taldeak ekarri zituen eskualdera ordura arte ezezagunak ziren brasildar erritmoak. Rio de Janeiro eta Salvador de Bahiako doinuak jarraituz egin dute ia hamar urteko ibilbidea. Perkusio afro-brasildarra zabaltzeko ahaleginean hurrengo pausoa, Bonberenean ematen ari diren ikastaroa da. Izen ematea irekita dago.

Erredakzioa

Perkusio afro-brasildarra ikasi nahi duen ororentzat antolatu du Mulambok ikastaroa. Ez da horrelako ekintza bat egiten duten lehenengo aldia. “Ikastaro asko egin ditugu. Baina antolatutako azken aldietan, oso jende gutxi bildu da. Duela lau urtetik hona, Inauterietan ere ez gara kalejiran atera, eta horrek ere izanogu du eragina”, azaldu du taldeko kide batek.

Ikastaro honen antolaketan ahalegin berezia egin dute. “Aurreko aldietan ez bezala, zabalpen handia eman diogu komunikabideetan iragarri eta kaleak kartelez josiz”. Aitzitik, ikastaro hau garrantzitsua da Mulamborentzat. “Gurea talde handia da. Gutxieneko kopuru bat behar da, bai emanaldietarako eta bai entsaioak egiteko. Batzuetan gertatzen da, arrazoi ezberdinengatik pertsona mordoxka batekin ezin etorri ahalizatea. Horregatik ordezkoak behar ditugu, errefortzua behar dugu. Hori bilatzen dugu



ikastaroetan”. Ikastaroan proba egitera anaimatu nahi dute jendea. Nahi izanez gero, Mulamboko ateak zabalik izango dituzte. “Mulambo talde irekia da. Beti izan ditu ateak zabalik”, argitu dute.

Ikastaroa hilaren 18an hasi zen, baina oraindik ere izen ematea zabalik dago. Sanjoan jaiak arte, larunbatero, goizeko 11:00etatik 13:00etara izango dira eskolak Bonberenean. “Perkusioa erraza da. Txalok jotzea bezala”, diote. Izena emateko nahikoa da 660.969.581 zenbakira deitu edo mulamb@gmail.com helbide elektronikora idaztea.

HUTSETIK HASITA IKASIZ EGINDAKO BIDEA

Ikastaroak eman bakarrik ez, hartu ere egin dituzte Mulamboko kideek. Hain zuzen ere, ikastaro batean sortu zen Tolosako perkusio taldea. “2000. urtean, San Esteban auzoko lokalera brasildar bat gonbidatu genuen perkusio ikastaro bat ematera. Jende mordoak eman zuen izena. Gustatu egin zitzaigun eta horrela hasi ginen”, kontatu dute. Fonoteketan arakatuz eta musika berria entzuz joan ziren perkusio afro-brasildararen panorama ezagutzen. Ezerezetik hasi ziren lanean. Izan ere, Mulambo

sortu baino lehenago, ez zegoen erritmo brasildarrak lantzen zituen talderik, ez eskualdean, ezta Gipuzkoan ere. “Ez zen batere erraza izan. Mota horretako musikarik ez zegoen hemen. Zer entzun jakiteko ere ez genuen erreferentziarik. Eta, pentsa nola ibili ginen instrumentuak lortzeko: Zartagiekin entsaiatzen genuen hasieran”. Baina pixkanaka, bidea eginez, ikasiz joan ziren. Bizkaiko Chantunga Benbe taldea izan zuten irakasle ibilbide berri horretan. Ikastaro gehiago ere egin zituzten. Marsellan, Amsterdamen... Bien bitartean, etengabeak ziren herri ezberdinetan-

zabaltzen



tik jotzera joateko egiten zizkieten deiak. Ondo zenbatuta dituzte 9 urte hauetan egin dituzten irteerak. “150 baino gehiago dira”, esan dute. Perkusio talde gutxi egotean, eskaerak bete ezinik ibiltzen ziren. Orain berriz, musika brasildarra jotzen duten talde asko ei daude. “Carlinhos Brown azaldu zenetik gurea bezalako taldeak perritxikoak bezala sortu dira. Eskaeratan bakarrik nabaritzen dugu hori”.

Rio de Janeiroko erritmoak jotzen hasi baziren ere, gaur egun, Salvador de Bahiako estiloa jarraitzen dute. “Inguru horretako musika egiten duten taldeak entzuten ditugu lehenik. Gustatzen zaizkigun erritmoak aukeratzen ditugu, eta ondoren, interpretatu egiten dugu gure ukitua emanez”. Hasiera batean, San Esteban auzoko lokalean egiten zizutzen entsaioak. Gaur egun, San Blas auzoan dute lokala. “Aurten dozena bar pertsona elkartzen gara entsaioetan. Azken urteetan beheraka egin du entsaioetan eta emanaldietan parte hartzen duten taldekideen kopuruak”. 30 pertsona atera izan diren garaietatik 15 laguneko kalejirak egitera igaro dira. Mulambon ere zail egiten zaie belaunaldi berrietako jendea erakartzea. Eskerrak lehengoak erretiratzen ez diren! “Une honetan, gazteenak 22 urte izango ditu, zaharrenak ia 40. Mulambon ez dago adin mugarik”.

ETA HAMARGARRENEAN ZER?

Datorren urtean, hutsetik hasitako bidea hamarrera iritsiko da. Hamar urte brasildar

Afro brasildar perkusio ikastaroa

Non. Bonberenean

Noiz: Larunbatetan, 11:00etatik 13:00ak arte.
Prezioa: 30 euro

Iraupena: Apirilaren 18tik Sanjoan jaiak arte. (Izen ematea oraindik ere zabalik)

Izen emateko: 660 969 581 edo mulamb@gmail.com

erritmoak zabaltzen. Ospatzeko moduko zenbakia da, eta Mulanbon badute urtemuga ospatzeko asmoa. Baina nola? Disko bat kaleratuz agian? “Hamar urteko ibilbidea egin eta gero, egia esan, badugu disko bat grabatzeko grina. Baina zaila da. Batetik, jotzen ditugun erritmoak ez dira guk sortutakoak. Bestetik, perkusioa bakarrik duen diskoak ez gaitu guztiz konbentzitzen”. Erabakia hartuta ez badute ere, azken bultzadaxoa besterik ez dute behar. Zain egon beharko da disko hori izango den edo ez jakiteko. Baina diskorik izaten ez bada ere ziur ohikoak dituzten kalejira jendetsu horietako batekin ospatuko dutela hamargarren urtebetetzea. Zu ere kalejira horren partaide izan zaitezke, badakizu nola. ■

Tolosa CF, gimnasten har

MAIATZEAN JOKATUKO DIRA GIPUZKOA ETA EUSKADIKO TXAPELKETAK

Leire Zubeldia

Tolosa CFko Gimnasia Erritmikako taldean, 70 gimnasta daude. Gero, Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetan ematen dituzte gimnasia eskolak, eta guztira, 300 baino gehiago dira Tolosan gimnasia erritmikoa egiten duten gazteak.

Bost eta sei urtekoak dira gazteenak. Prebenjamin mailatik hasi, eta adinean aurrera doazela, maila guztietatik igarotzen dira jubenil mailara arte. Seniorrik ez dute oraindik, baina datorren denboraldian izango dituzte, aurten jubenilak direnak mailaz igoko baitira.

Hamar urte daramatzate gaur duten harrobia lantzen.

Pazko astea izanda ere, Usabalgo kantxan topatu ditu Galtzaundik Tolosa CF taldeko gimnastak. Gogor ari dira lanean, maiatza hilabete garrantzitsua baita eurentzat. Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak dituzte aurrez aurre. Emaitzek garrantzia dute noski, baina ez daude itsututa. Gimnasia erritmikoa ondo pasatzeko modua da Tolosa CFkoentzat. Entrenamendu saioan ikusitako irribarreek frogatzen dute hori.

Urte guzti hauetan, pixkanaka bada ere, gimnasia erritmikoak gora egin du. Gorakadarrik nabarmenena azkeneko hiru urte hauetan nabaritu dute. “Urtero hamabi bat haur gehiago izan ditugu. Baina aurtengo denboraldian gorakada handiagoa izan da. Olinpiar jokoen urtean ematen da aupadarrik handiena”, azaldu du Arantza Aristondo entrenatzaileak.

GIPUZKOA ETA EUSKADIKO TXAPELKETEI BEGIRA

Irailan hasten dira entrenamenduekin. Txapelketak berriz urtarrilean iristen dira eta ekainera arte irauten dute. Tolosa

CFko gimnastentzat, maiatza da urteko hilabeterik garrantzitsuenak. Hilabete honetan jokatu dituzte Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak. Bertan lehiatu ahal izateko ordea, aurretik, gogor egin behar izan dute lan. Orain artekoaren balorazio ona egin du Jaione Tejedor entrenatzaileak. “Saillkapen probetan oso ondo egin dugu lan. Gure gimnastak beti ibili dira aurrean, bai taldekako probetan eta baita bakarkakoetan ere”. Baina entrenatzaileak esan duen moduan, orain dator garrantzitsuenak. “Gure helburua ahalik eta lan txukunena egitea da,

ikasitakoa praktikan jartzea. Izan ere, akats txikiena egitea nahikoa da urteko lan guztia pikutara bidaltzeko. Lana aurrera ateratzearekin konformatzen gara. Emaitzak, etorri behar badute etorriko dira”.

Maiatzaren 16an A mailako txapelketa jokatu da Bergaran. B mailakoa Tolosan jokatu da hilaren 23an. “A mailako txapelketak zailtasun handiagoa du B mailakoak baino. Gimnasta bakoitzaren gaitasunaren eta gogoaren arabera sailkatzen ditugu maila batean edo bestean”. Gipuzkoako A mailako txapelketan sailkatzen direnak Euskadiko Txapelke-



Tolosa CF-ko gimnasia erritmikako neska juniorren taldea.

robria lantzen, hazten


AKADIKO GIMNASIA ERRITMIKAKO TXAPELKETAK

tara egingo dute salto. Hau Gas-teizen jokatu da. B mailako-ek bestelako bideak dituzte. Azken talde honetan, sailkapen orokorreko lehenengo bi postuetan geratzen direnak A mailan egiten dute hurrengo denboraldia. Horixe da Tolosa CF taldean duten mutil gimnasta bakarrari gertatu zaiona. “Iaz igaro zen B mailatik A mailara eta oso ondo ari da”. Aukera probestuz, mutilak gimnasia erritmikoa probatzera animatu dituzte.

Bestalde, txapelketa hauetan taldeka eta bakarka, bi eratera hartuko dute parte Tolosako gimnasia erritmika taldeko kideek. Bakarkako lana zenbaitzuk bakarrik egingo dute. “Honek esan nahi du, taldeak lana prestatzeaz gainera, bakarkako ariketa prestatzeko ere etorri behar dutela gimnastek. Horregatik proba indibidualean parte hartzeak konpromiso handia, eta gogoia eskatzen du”. Gipuzkoako Txapelketan 8 gimnastek egingo dute bakarkako proba.

ENTRENAMENDUA, BEREZIKI GARRANTZITSUA

Kirol guztietan entrenamenduak ezinbestekoak badira, gimnasia erritmikoan berebiziko garrantzia du prestaketak. “Oso kirol tekniko da. Gauzak horrela dira eta horre-



Usabal kiroldegiko kantxan entrenatzen dute. Gustura daude instalazioekin baina leku gehiagoren beharrea izango direla esan dute.

la egin behar dira. Perfekzioa beharrezkoa da, eta ariketa perfektua ez bada, epaileak ez du ontzat ematen. Beharrezkoa da behin eta berriz ariketak errepikatzea”.

Entrenamendu orduak gimnasta bakoitzak behar duenaren arabera izaten dira. “A mailakoek B mailakoek baino ordu gehiago sartzen dituzte normalean. Baina orokorrean, norberak duen gogoaren edo helburuaren arabera izaten da”.

Eta zer izango lirateke gimnasten erakustaldiak tresnarik gabe? Denboraldi hasieran zehazten da kategoria bakoitzean gimnastek erabili beharreko tresna zein den. “Aurten alebinak pilotekin ari dira, benjaminak uztaiekin”. Urtero urtero, aparatuz aldatzen dute eta pixkanaka, tresna guztiak probatzen joaten da gimnasta.

TOPIKOAK HAUTSIZ

Tejedor eta Aristondo entrenatzaileek, gimnasia erritmikoa “bartzertuta” dagoela adierazi dute. Futbola, saskibaloia, atletismoa... kirol guztiak daude gimnasiaren aurretik, eta gimnastak ahazturik daude. Hala ere, lehen aipatu bezala, gimnasia erritmikoa gero eta gazte gehiagok egiten duen aukera da. “Telebistak zerikusia du horretan. Azken urteetan, kateek tarte gehiago egin diote gimnasiari, eta horrek izan du bere eragina”. Gainera gimnasia erritmikoa kaltetu izan duen topikoa ere gaintituta dagoela uste dute. “Beti pentsatu izan da gimnasia erritmikoa txarra dela gorputzaren garapenerentzat. Hori ez da horrela eta jendea ohartu da horretaz. Beldur hori gaintituta dago dagoeneko. Bestela ez

litzateke horrenbeste jende gerturatuko gugana”, diote.

Tolosa CFko Gimnasia Erritmikoko taldeak bide beretik jarraitu nahi du aurrerantzean. “Oso ondo gaude, eta horri eutsi nahi diogu, baina pauso berriak emanez”. Usabal kiroldegian egiten dituzte entrenamenduak. Instalazio onak dira, eta gustura daudela aitortu dute. “Baina hala ere, leku zabalago bat nahiko genuke. Gure erroka gimnasta gehiago izatea da. Gainera, badakigu jende gehiago dagoela izena emateko zain. Hortaz, leku gehiagoren beharrea aurkituko gara”, azaldu dute.

Gimnastak gustura etortzen dira entrenatzera, ilusioz egiten dute lan. Emaitzen gaintetik dago hori. “Ondo pasatzea da helburua”.



MENDIZABAL
abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena
686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoaharagia.com
Mendizabal Baserrria
20.248-Arama (Gipuzkoa)

Jarri zure publizitatea

Galtzaundin

943 655 004
publizitatea@galtzaundi.com



Letxu kalea, 4 behea
679 208 103 - 689 421 849

Apirilaren 24tik maiatzaren 8ra arteko hi


Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

»» Maiatzaren 16ra arte: *Kaleidoskopio* ize-neko erakusketa, Mariano Arsuagaren eskutik.

Mariano Arsuaga



kaleidoskopioa

»» Apirilak 25: *Agua tinta* erakusketa Naturaldia jardunaldien baitan.

IKUSKIZUNAK

LEIDOR

»» Martxoak 25. 100 % Tricycle (Clownic) antzezlan, 20:30ean



MUSIKA

BONBERENEA

»» Apirilak 24: Willis drummond eta Sharon stoner 22:30ean.

»» Apirilak 25: Balerdi terdi eta Fiachras taldeen emanaldia 22:30ean.

»» Maiatzak 1: Gose eta Sagarroi taldeak, 22:30ean.

»» Maiatzak 7: We are standard taldea 22:30ean



»» Maiatzak 8: Acido C eta Manba beat taldeen zuzeneko 22:30ean.

ARANBURU JAUREGIA


»» Apirilak 30: Anjel Unzuren kontzertua 20:00etan.

NATURALDIA



»» Apirilak 24: Hitzaldia Leidor aretoan arratsaldeko 20:00etan. *Adimen Ekologikoa*. Hizlaria: Jose Antonio Marina, irakasle eta filosofoa.

»» Apirilak 27: Ikusentzuzekoa Leidor aretoan, arratsaldeko 20:30ean: *La leyenda del hombre veloz*.



TXOLARRE IRRATIA KABITIK PLAZARA

BERASTEGI

»» Apirilak 25: Kantu bazkaria Urepele Elkartean. 14:00etan hasiko da bazkaria. Ondoren, Izaro Saizar, Maialen Etxeberría, Iñaki Barriola eta Garazi Esnaolak prestatutako emanaldi bereziarekin guztiok kantura!



OREXAKO FESTAK 2009

»» Apirilak 30, 21:30; oilarraren jaitsiera. 22:30; kantaldia.

»» Maiatzak 1: 16:30; Patxin eta Potxin pailazoaren emanaldia haurrentzat. 19:00; Apustua auzoen artean, korrikalaria eta txirrindulariarekin. 21:00; Sardina jana. Ondoren erromeria: Astiazaran anaiak eta Leire.

tzorduak

►► **Maiatzak 2:** 17:30; Oresako II. Goitibehera jaitsiera. 21:00; Herri afaria. 24:00; dantzaldia Gabezin taldearekin. Ondoren DJ Bull kalejira.

►► **Maiatzak 3:** 12:00; Diana herriko txistulariekin. Ondoren hamaiketakoak. 17:00; Lizartza eta Oresako haurren pilota partiduak. 19:00; Sagardo probaketa. 20:00; bertsolariak. Ondoren, oilarren jaitsiera.



GIPUZKOA ENCOUNTER

USABAL KIROLDEGIA

►► **Apirilak 1etik 3ra:** Gipuzkoako informatikazaleen bilkura. Aurten hirugarren aldiz ospatuko da Tolosan.

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Ikastaroak

Ikastaroa	Iraupena (orduak)	Hasiera Data
Oinarrizko Joskintza	12	2009.04.20
Automatizazio industriala (mekanikoentzat elektrizitateak)	35	2009.04.27
Lan Arriskuen Prebentzioa	40	2009.04.27
Kalitate erremintak	24	2009.04.27
Lan Taldeen Kudeaketa (adimen emozionala)	40	2009.04.27
Txinako medikuntza tradizionalaren onurak	2	2009.04.30
Soinua jartzea eta zuzeneko muntaia	40	2009.05.04
Soinu ikastaro teoriko-praktikoa	40	2009.05.04
Geriatrico erizaintza laguntzailea	300	2009.05.04
Internet + e-administratzaioa kzgunea	20	2009.05.04
Erregulazio elementuak (hidraulika)	20	2009.05.11

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17
20400 Tolosa
Telefona: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com

<http://www.ikastn.com>

Guardiako farmaziak

APIRILA

- Ostirala, 24**
Tolosa, M^a Isabel (Nagusia, 7)
Tolosa
- Larunbata, 25**
Ugarte, M^a Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Igandea, 26**
Etxebeste Jesus M^a (Gernikako arbola, 3) Tolosa
- Astelehena, 27**
Bronte Cecilia, (korreo 20) Tolosa
- Astearte, 28**
Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa
- Asteazkena, 29**
Olarreaga M (Martin Jose Iraola) Tolosa
- Osteguna, 30**
Morant Rosalia. Zabalarmeta, 1, Tolosa
- Ostirala, 1**
Iturrioz, I. (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Larunbata, 2**
Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
- Igandea, 3**
Tolosa, M^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
- Astelehena, 4**
Ugarte, M^a Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Astearte, 5**
Bronte Cecilia, (korreo 20) Tolosa
- Asteazkena, 6**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Osteguna, 7**
Etxebeste Jesus M^a (Gernikako arbola, 3) Tolosa

Telefono interesgarriak

- Alegia-Amezketak-Abaltzisketa-Alburtur**
Osasun zentroa 943 653 212
- Altzo**
Medikua 943 654 737
- Anoeta-Alkiza-Hernalde**
Medikua 943 652 339
- Baliarrain**
Medikua 943 889 003 (asteazk.)
- Berastegi-Elduain**
Medikua 943 683 361
- Bidegoian**
Medikua 943 681 134
- Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gatzelu-Leaburu**
Osasun etxea 943 672 411
- Ikaztegieta**
Medikua 943 653 329
- Irura**
Osasun zentroa 943 690 720
- Tolosa**
Ambulatorioa, larrialdiak 943 650 931
San Esteban, hitzordua 943 006 800
Gernikako Arbola, hitzor 943 006 900
Amarozko dispensarioa 943 672 637
Asunzion klinika 943 675 799
(larrialdiak) 943 675 390
San Kosme San Damian
geriatrico 943 672 932
Udaltzaingoa 943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi) 943 650 016
Ur zerbitzuak (aberiak) 639 352 156
Iurreamendi egoitza 943 670 325
Larrialdiak, Suhiltzaileak 112
DYA 943 672 536
Gurutze Gorria 943 674 888
. 943 651 425
Ertzantza 943 673 022
Tolosa Gasa 943 675 320
- Lizartza**
Medikua 943 682 077
- Orendain**
Medikua 943 655 595
- Orexa**
Medikua 943 682 228

Vicente
Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294
■ Irura Faxa. 943 694291
rotulosvicente@jet.es

T X O K O L A T E G I A

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 651 830

K A F E T E G I A

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izagire

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

Muxu- -truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliar lanetan aritzeko. **671 44 66 15**

ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**

SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equipa 18.000 euro. **629 52 51 50**.
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669**.
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678 923 512
- **Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km)** salgai 617 863 669
- **Espace bat** saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- **kangoo bat salgai** (70.000 km) **Montesa motoa** salgai. 617 863 669
- **Pottoka kalifikatuak salgai** (kumeak egitekoak) **Txakurkumeak** salgai (pins-txer arrazakoak). 645 703 634

HOROSKOPOA

APIRILAREN 24TIK MAIATZAREN 8RA BITARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Alde bateko eta besteko iritzi asko entzun dituzu. Ez jaramonik egin. Zuretzat onuragarriena izango dena erabaki behar duzu. Garbiketa beharra daukazu: entsaladek, frutak... on egingo dizute.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Eskerturik zaudela esatea errazena da. Oriari duzu ekintzen bidez zure esker ona erakusteko aukera. Proban jarri nahi zaituzte. Zure esku dago azterketa gainditu edo ez.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Ez lizuke beldurrik eman behar etorkizuna birplanteatzeak. Oraindik garaiz zaude, ez atzeratu erabakia. Baten bat azpizokotan dabil zure aurka. Inbidia da sator-lan horren arrazoa.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Ezusteko atsegin bat izango duzu egun hauetan. Aspaldiko amets bat bete zeko aukera emango dizu horrek. Apirileko azken egunak, zure egunak izango dira.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Lan aukera bat izango duzu, itxura onekoa. Baina aztertu ezazu eskaintza sakon. Bestalde, orain duzun lan postuak ere ez du etorkizun luzeirik. Alde-ratu bi aukerak.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Diru galera handia iragartzen dute zure izarrek. Beraz, inoiz baino gehiago begiratu beharko diozu poltsikoari. Zure lan postua arriskuan ikusten baduzu ere, lasai erag zaitzake.



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Animikoki oso pertsona orekatua zara. Hala ere, bolada txar bat igarotzea egokituko zaizu. Inguruko babes osoa jasoko duzu ordea, eta euren laguntzarekin laster irtengo zara zulotik.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Oso erakargarri zaude. Itxura aldaketa bat egiten baduzu, oraindik eta dizdira handiagoa egingo duzu. Egundak datoz jendea ezagutu eta maitasunaren atean jotzeko.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Familiako kide batekin haserrealdia bat izango duzu. Gauzak hitz eginez konpontzen dira. Harrokeriak alde batera utzi eta arazo hori lehenbailehen konpontzea komeni zaizu.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Lesioren bat izan dezakezu, beraz kontuz ibili kirola egitera ateratzen zarenean. Bestalde, hasi dira herrietako festak. Pixkanaka hasi, gaixo erori nahi ez baduzu.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Bidaia labur bat egiteko aukera eskainiko dizute. On egingo dizu zure eguneroko inguruetatik ateratzeak. Inspirazioa agortu zaizu, eta horrek ere bere atsedena behar izaten du.



PISCIS

Otsailak 21 – Martxoak 20

Aspaldi ez duzu ikusi eta berarekin arratsalde bat igarotzeko gogoia duzu. Deitu izeaziozu, gustura hartuko du zure eskaintza. Etxe-tresnaren batek, edo autoak arazoak emango dizkizu.





berogas


langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .


Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com

INDUSTRIALAK
 Instalazioak, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .




Mª Teresa de Olabarria Ruiz
 OPTOMETRISTA

IKUSMEN TERAPIA

- Estrabismoak
- Anbliopiak (Begi alferra)
- Ikaste zailtasuna
- Garapeneko arazoak
- Garezur-entzefaliko traumatismoek eragindako arazoak

AUDIOTRAINING

- Hiperaktibitatearen murrizpena
- Ansietatearen murrizpena
- Animoaren hobekuntza

San Francisco 11, 1º ezk. TOLOSA
 e-mail:teresaola@euskalnet.net
HITZORDUA - 652 773 813




Mertxe Anregui
 Laguntza-Profesionala



Profesionala laguntza-eremua
 (Laguntza-eremua eta laguntza-eremua)
 Laguntza-eremua eta laguntza-eremua
 Laguntza-eremua eta laguntza-eremua

Laguntza-eremua eta laguntza-eremua
 (Laguntza-eremua eta laguntza-eremua)
 Laguntza-eremua eta laguntza-eremua
 Laguntza-eremua eta laguntza-eremua



GOIERRI LANBIDE
ESKOLA



ate irekiak:
maiz zak 9

Goierrri
Lanbide eskola,
bost arrazoi
bete-betean
asmatzeko!

1. Aukera zabalena
2. Etorkizunekoa
3. Enprekin elkarlanean
4. Zuretzat egina
5. Ikasteko eredu aurreratua

batxilergoa eta heziketa zikloak egiteko biderik onena